

**2019ko URTARRILAREN 16ko TOKIKO
GOBERNU BATZORDEKO
BILKURAKO AKTA.**

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2019-01-16.
Hasiera ordua: 13:15.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:
M. Aranzazu Zubieta Ochoteco
Ixone Tellechea Uranga
EZ DA ETORRI:
German Castillo Lazcanotegui (lana).

ALKATEA (Bilkurako buru):
Josu Iratzoki Agirre

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea,
ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

**1. AZKENEKO BILKURAKO AKTAREN
ONARPENA.**

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2018/12/05). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

**2. HIRIGINTZA (OBRA BAIMENAK ETA
BESTE BATZUK).**

**2.1. OBRA HANDIKO LIZENTZIA.
TELLETXEA ETXEKO TEILATUA ETA
FATXADAK ERABERRITZEA.
PARTZELA 298, POL. 3. HERRIKO
ETXEKO PLAZA, 7.**

Sustatzailea: M. Teresa Tellechea Sanzberro.

Obra: *Telletxea* etxeko teilatua eta fatxadak eraberritzea (*Arribillaga* izenarekin

**ACTA DE SESIÓN DE JUNTA DE
GOBIERNO LOCAL DE 16 DE ENERO
DE 2019.**

Lugar: Casa Consistorial de Bera.
Día: 16-01-2019.
Hora comienzo: 13:15.
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

ASISTEN:
Mª Aranzazu Zubieta Ochoteco
Ixone Tellechea Uranga
NO ASISTE:
German Castillo Lazcanotegui (trabajo).

ALCALDE (preside la sesión):
Josu Iratzoki Agirre

SECRETARIO: Miguel José Belarra Tellechea, levanta acta del acto.

ASUNTOS TRATADOS (incluidos en el Orden del Día de la convocatoria realizada al efecto):

**1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN
ANTERIOR.**

Pregunta el Alcalde si alguna de las concejales desea hacer alguna observación al acta de la sesión anterior (05/12/2018) repartida con la convocatoria. No se ha manifestado ninguna, aprobándose el acta **por unanimidad**.

**2.- URBANISMO (LICENCIAS DE
OBRAS Y OTROS).**

**2.1.- LICENCIA DE OBRA MAYOR.
REHABILITACIÓN DE TEJADO Y
FACHADAS DE CASA TELLETXEA.
PARCELA 298, POL. 3. HERRIKO
ETXEKO PLAZA, 7.**

Promotora: María Teresa Tellechea Sanzberro.

Obra: Rehabilitación de tejado y fachadas de casa *Telletxea* (conocida como casa

<p>ageri da zenbait agirietan). Partzela 298, pol. 3. Herriko Etxeko plaza, 7.</p> <p>Dokumentazioa: exekuzio proiektua.</p> <p>Teknikaria: Oihana Carton Felipe arkitektoa.</p> <p>Elkargo ofizialaren oniritzia: 2018-06-15.</p> <p>Agiri osagarriak: Ez dago.</p>	<p><i>Arribillaga</i> en algunos documentos). Parcela 298, pol. 3. Herriko Etxeko plaza, 7.</p> <p>Documentación: proyecto de ejecución.</p> <p>Técnica: arquitecta Oihana Carton Felipe.</p> <p>Visado por el Colegio Oficial: 15/06/2018.</p> <p>Documentación complementaria: No.</p>
<p>Ikusirik:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Obra lizentziaren espedientea, <i>Telletxea</i> etxeko teilatua eta fatxadak eraberritzeko (partzela 298, pol. 3. Herriko Etxeko plaza, 7), goiburuan aipaturiko agiriekin. - Eraikuntza katalogatua izanik, aldekoa izan dela Ondare Historikoaren Zerbitzuko txostena (2018-09-07). - Nasuvinsak 2018ko urriaren 22an egindako txosten teknikoa. - Udaleko Idazkaritzak 2019ko urtarrilaren 14an egindako txosten juridikoa. <p>Aho batez ERABAKITZEN DA:</p> <p>1. Eskatutako obra lizentzia ematea M. Teresa Tellechea Sanzberrori, aurkeztutako proiektua eta indarrean dagoen araudiaren arabera, eta aipatzen diren zehaztapen hauek konplitzeko baldintzarekin:</p> <p>1.1. Zuinketa-akta edo hasiera-akta egin behar da udal teknikariarekin obra hasi baino lehen.</p> <p>1.2. Sustatzaileak agiria aurkeztu behar du non ziurtatuko den obra egiteko hartu duen eraikitzaila inskribaturik dagoela</p>	<p>Visto:</p> <ul style="list-style-type: none"> - El expediente de licencia de obras para rehabilitación de tejado y fachadas de casa <i>Telletxea</i> (parcela 298, pol. 3. Herriko Etxeko plaza, 7), con la documentación referenciada en el encabezamiento. - El informe favorable del Servicio de Patrimonio Histórico del Gobierno de Navarra, de 7 de septiembre de 2018, dado que se trata de un edificio catalogado. - El informe técnico emitido por Nasuvinsa el día 22 de octubre de 2018. - El informe jurídico emitido por Secretaría municipal en fecha 14 de enero de 2019. <p>Por unanimidad SE ACUERDA:</p> <p>1.- Conceder a María Teresa Tellechea Sanzberro la licencia de obras solicitada, de acuerdo con el proyecto presentado y la normativa vigente, condicionada al cumplimiento de las siguientes determinaciones:</p> <p>1.1.- Deberá realizarse con el técnico municipal la correspondiente acta de replanteo o inicio antes de iniciar la obra.</p> <p>1.2.- La promotora deberá presentar un documento que certifique la contratación de un constructor poseedor de RCDs autorizado por</p>



eraispenetako hondakinen edukitzaile diren eraikitzaileen Nafarroako Gobernuko erregistroan.

1.3. Txosten teknikoetan zehaztutako baldintzak bete behar dira: entokatu gabe uzten den zatia egun grisez margoturik dagoena izango da; estetika mantendu behar da teilatuegalek konkaboan, mantsardan, balkoietako egurrean eta harrizko markoetan.

1.4. Obra baimen honekin baimentzen dira aurkeztutako proiektuan agertzen diren obrak, azaldutako baldintzekin. Aldaketak izanez gero, obra baimenaren aldaketa eskatu egin behar da; jakinik, sustatzailea, kontratista eta obra zuzendaria direla obraren arduradunak ondorio guztietarako.

1.5. Obra hasi baino lehen, Udalak diseinatutako kartela jarri behar da obran bertan, ikusten den toki batean, eta obrak irauten duen bitartean mantendu.

1.6. Bide publikoa hartu behar balitz aldamio edo beste elementuekin, Udalaren baimena eskatu behar da aurretik.

1.7. Hauek dira baimendutako obrak egiteko epeak: urte bat hasteko eta hiru bukatzeko.

1.8. Lizentzia hau ematen da toki araubideko edo araubide sektorialeko legediaren arabera, aginduzkoak diren gainerako baimenak utzi gabe eta hirugarrengoen kalterik gabe.

2. Jakinaraztea eraikina, instalazioa edo obra hastean, Udalarari ordaindu behar zaiola eraikin, instalazio eta obraren gaineko zergaren behin-behineko kitapena. Kitapen hau 2.211,61 eurokoa da, aurkeztutako aurrekontuaren %5a hain zuzen ere.

el Gobierno de Navarra para la ejecución de la obra.

1.3.- Cumplir las condiciones detalladas en los informe técnicos: la franja sin revocar deberá ser la que actualmente está pintada de gris; conservar la estética del alero cóncavo, de la mansarda, la madera de los balcones y los recercados de piedra.

1.4.- Con esta licencia de obras se autorizan las obras que constan en el proyecto presentado, con las indicaciones aquí expresadas. Si hubiera modificaciones en la obra se deberá solicitar modificación de la licencia de obras concedida, sabiendo que, a todos los efectos, los responsables de la obra son el promotor/a, la empresa contratista y la dirección de la obra.

1.5.- Antes del inicio de la obra deberá colocarse en la misma el cartel diseñado por el Ayuntamiento en lugar visible y deberá mantenerse mientras dure dicha obra.

1.6.- Si fuese necesario ocupar la vía pública con andamios u otros elementos, habrá que solicitar permiso previamente al Ayuntamiento.

1.7.- Los plazos para la ejecución de estas obras serán de un año para comenzarlas y de tres para terminarlas.

1.8.- Esta licencia se otorga sin perjuicio de las demás autorizaciones que sean preceptivas de acuerdo con la legislación de régimen local o sectorial y sin perjuicio de terceros.

2.- Comunicarle que la liquidación provisional del Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras asciende a la cantidad de 2.211,61 euros, 5% del presupuesto presentado, importe que deberá abonar al Ayuntamiento en el momento de iniciarse la construcción, instalación u obra.

Behin betiko kitapena egiteko, obra-bukaerako ziurtagiria aurkeztu beharko du lanak bukatutakoan, non egindako obren benetako gastua zehaztu behar baita.

Udal teknikariek aztertuko dituzte 100.000 eurotik goitiko aurrekontua duten obra guztiak.

Aurrekontu txikiagoei dagokionez, merkatuko prezioak baino baxuagoak baldin badira, berrikusiko dira baita ere.

Hori dela eta, sustatzaileek lau urtez gorde beharko dituzte dagozkien fakturak, obra bukaeratik kontatzen hasita, egindako benetako inbertsioa ziurtatu ahal izateko.

3. Adieraztea obra hasi aurretik obrarako behar den ur-hartunea eskatu eta kontratua egin behar duela.

4. Aipatzea errekatik 100 metroko tartean eraiki behar bada, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren baimena lortu beharko duela obra hasi baino lehen.

5. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari.

2.2. OBRA HANDIKO LIZENTZIA. ERRIKOETXEA ERAIKINA PARTZIALKI BOTATZEA. PARTZELA 124, POL. 4. ALTZATE KARRIKA, 20.

Para su liquidación definitiva, deberá presentar certificación final de las obras en las que se indique el coste real efectivo de las realizadas a la finalización de las mismas.

Todos los presupuestos de obras superiores a 100.000 € serán revisados por los técnicos municipales.

Respecto a los presupuestos inferiores a dicha cantidad, también serán revisados si se estiman inferiores a los precios de mercado.

Por ello, los y las promotoras deberán conservar las facturas pertinentes que justifiquen la inversión realmente realizada, durante el plazo de 4 años desde el fin de las obras.

3.- Señalarle que, antes de iniciar la obra, deberá solicitar y contratar la toma de agua correspondiente para la misma.

4.- Indicarle que si se va a edificar a menos de 100 metros de alguna regata deberá obtener la autorización de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico antes de iniciar la obra.

5.- Notificar este acuerdo a la promotora.

2.2.- LICENCIA DE OBRA MAYOR. DERRIBO PARCIAL DE EDIFICIO ERRIKOETXEA. PARCELA 124, POL. 4. C/ ALTZATE, 20.

Sustatzailea: Iñaki Rekalde Zuriarrain.

Obra: *Errikoetxea* eraikina partzialki botatzea. Partzela 124, pol. 4. Alzate karrika, 20.

Dokumentazioa: exekuzio proiektua.

Teknikaria: Alfredo J. Lainsa Lapitz arkitektoa.

Elkargo ofizialaren oniritzia: 2014-06-19.

Promotor: Iñaki Rekalde Zuriarrain.

Obra: Derribo parcial de edificio *Errikoetxea*. Parcela 124, pol. 4. C/ Alzate, 20.

Documentación: proyecto de ejecución.

Técnico: Alfredo J. Lainsa Lapitz, arquitecto.

Visado por el Colegio Oficial: 19/06/2014.



<p>Agiri osagarriak: 2765/2018-12-20 zenbakia Sarrera Erregistroan.</p>	<p>Documentación complementaria: número 2765/2018-12-20 del Registro de Entrada.</p>
<p>Ikusirik:</p> <ul style="list-style-type: none">- Obra lizentziaren espedientea, <i>Errikoetxea</i> eraikina partzialki botatzeko (partzela 124, pol. 4. Alzate karrika, 20), goiburuan aipaturiko agiriekin.- Abuztuaren 17ko 150/2018 Alkatzaren Ebazpenaren bitartez adierazi zela eraikiaren auri-egoera partziala eta agindu zela haren eraiste partziala eta birgaitzea.- Eraikuntza katalogatua izanik, aldekoa izan dela Ondare Historikoaren Zerbitzuko txostena (2018-11-19).- Nasuvinsak 2018ko abenduaren 24an eta 2019ko urtarrilaren 11n egindako txosten teknikoak.- Udaleko Idazkaritzak 2019ko urtarrilaren 15ean egindako txosten juridikoa.	<p>Visto:</p> <ul style="list-style-type: none">- El expediente de licencia de obras para derribo parcial de edificio <i>Errikoetxea</i> (parcela 124, pol. 4. C/ Alzate, 20.), con la documentación referenciada en el encabezamiento.- Que por Resolución de Alcaldía nº 150/2018, de 17 de agosto, se declaró la edificación en ruina parcial y se ordenó la demolición parcial del inmueble y su posterior rehabilitación.- El informe favorable del Servicio de Patrimonio Histórico del Gobierno de Navarra, de 19 de noviembre de 2018, dado que se trata de un edificio catalogado.- Los informes técnicos emitidos por Nasuvinsa el 24 de diciembre de 2018 y el 11 de enero de 2019.- El informe jurídico emitido por Secretaría municipal en fecha 15 de enero de 2019.
<p>Aho batez ERABAKITZEN DA:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Eskatutako obra lizentzia ematea Iñaki Rekalde Zuriarraini, aurkeztutako proiektua eta indarrean dagoen araudiaren arabera, eta aipatzen diren zehaztapen hauek konplitzeko baldintzarekin:<ol style="list-style-type: none">1.1. Zuinketa-akta edo hasiera-akta egin behar da udal teknikariarekin obra hasi baino lehen.1.2. Sustatzaileak agiria aurkeztu behar du non ziurtatuko den obra egiteko hartu duen eraikitzailea inskribaturik dagoela eraispenetako hondakinen edukitzaile diren eraikitzaileen Nafarroako Gobernuko	<p>Por unanimidad SE ACUERDA:</p> <ol style="list-style-type: none">1.- Conceder a Iñaki Rekalde Zuriarrain la licencia de obras solicitada, de acuerdo con el proyecto presentado y la normativa vigente, condicionada al cumplimiento de las siguientes determinaciones:<ol style="list-style-type: none">1.1.- Deberá realizarse con el técnico municipal la correspondiente acta de replanteo o inicio antes de iniciar la obra.1.2.- El promotor deberá presentar un documento que certifique la contratación de un constructor poseedor de RCDs autorizado por el Gobierno de Navarra para la ejecución de la obra. Debe cumplirse lo establecido por el

erregistroan. 23/2011 Foru Dekretuan eta 105/2008 Errege Dekretuan ezarritakoa bete behar da.

1.3. Txosten teknikoetan zehaztutako baldintzak bete behar dira: atzeko balkoietako barrote torneatuak mantendu, baita zurgintza elementuak, landuak baldin badaude edota moldurak izanez gero, berrerabili ahal izateko; ez da atzealdeko beheko solairuko pareta botako.

1.4. Obra baimen honekin baimentzen dira aurkeztutako proiektuan agertzen diren obrak, azaldutako baldintzekin. Aldaketak izanez gero, obra baimenaren aldaketa eskatu egin behar da; jakinik, sustatzailea, kontratista eta obra zuzendaria direla obraren arduradunak ondorio guztietarako.

1.5. Obra hasi baino lehen, Udalak diseinatutako kartela jarri behar da obran bertan, ikusten den toki batean, eta obrak irauten duen bitartean mantendu.

1.6. Bide publikoa hartu behar balitz aldamio edo beste elementuekin, Udalaren baimena eskatu behar da aurretik. Altzate karrika hartzeko, obra zuzendaritza koordinatu beharko da udal zerbitzuekin.

1.7. Hauek dira baimendutako obrak egiteko epeak: urte bat hasteko eta hiru bukatzeko. Obra bukatu ostean, birgaitze proiektua aurkeztu beharko da 3 hilabeteko epean.

1.8. Lizentzia hau ematen da toki araubideko edo araubide sektorialeko legediaren arabera, aginduzkoak diren gainerako baimenak utzi gabe eta hirugarrenen kalterik gabe.

2. Jakinaraztea eraikina, instalazioa edo obra hastean, Udalari ordaindu behar zaiola eraikin, instalazio eta obren gaineko zergaren behin-behineko kitapena. Kitapen hau

Decreto Foral 23/2011 y el Real Decreto 105/2008.

1.3.- Cumplir las condiciones detalladas en los informe técnicos: se conservarán los barrote torneados de los balcones posteriores, así como los elementos de carpintería que tengan talla o molduras, para su reutilización; no se derribará el muro de planta baja de la fachada posterior.

1.4.- Con esta licencia de obras se autorizan las obras que constan en el proyecto presentado, con las indicaciones aquí expresadas. Si hubiera modificaciones en la obra se deberá solicitar modificación de la licencia de obras concedida, sabiendo que, a todos los efectos, los responsables de la obra son el promotor/a, la empresa contratista y la dirección de la obra.

1.5.- Antes del inicio de la obra deberá colocarse en la misma el cartel diseñado por el Ayuntamiento en lugar visible y deberá mantenerse mientras dure dicha obra.

1.6.- Si fuese necesario ocupar la vía pública con andamios u otros elementos, habrá que solicitar permiso previamente al Ayuntamiento. Para la ocupación de la calle Alzate, la dirección de obras se deberá coordinar con los servicios municipales.

1.7.- Los plazos para la ejecución de estas obras serán de un año para comenzarlas y de tres para terminarlas. Tras la finalización de las obras, deberá presentar proyecto de rehabilitación en un plazo de 3 meses.

1.8.- Esta licencia se otorga sin perjuicio de las demás autorizaciones que sean preceptivas de acuerdo con la legislación de régimen local o sectorial y sin perjuicio de terceros.

2.- Comunicarle que la liquidación provisional del Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras asciende a la cantidad de 2.853,93 euros, 5% del presupuesto

2.853,93 eurokoa da, aurkeztutako aurrekontuaren %5a hain zuzen ere.

Behin betiko kitapena egiteko, obra-bukaerako ziurtagiria aurkeztu beharko du lanak bukatutakoan, non egindako obren benetako gastua zehaztu behar baita.

Udal teknikariek aztertuko dituzte 100.000 eurotik goitiko aurrekontua duten obra guztiak.

Aurrekontu txikiagoei dagokionez, merkatuko prezioak baino baxuagoak baldin badira, berrikusiko dira baita ere.

Hori dela eta, sustatzaileek lau urtez gorde beharko dituzte dagozkien fakturak, obra bukaeratik kontatzen hasita, egindako benetako inbertsioa ziurtatu ahal izateko.

3. Adieraztea obra hasi aurretik obrarako behar den ur-hartunea eskatu eta kontratua egin behar duela.

4. Aipatzea errekatik 100 metroko tartean eraiki behar bada, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren baimena lortu beharko duela obra hasi baino lehen.

5. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari.

2.3. OBRA LIZENTZIAREN ALDAKETA ETA OBRAK BERRIZ HASTEKO BAIMENA. SAGARDIGARAIA ERAIKINA BIRGAITZEA PARETAK BOTATA. PARTZELA 132, POL. 1. ZALAIN AUZO, 39.

presentado, importe que deberá abonar al Ayuntamiento en el momento de iniciarse la construcción, instalación u obra.

Para su liquidación definitiva, deberá presentar certificación final de las obras en las que se indique el coste real efectivo de las realizadas a la finalización de las mismas.

Todos los presupuestos de obras superiores a 100.000 € serán revisados por los técnicos municipales.

Respecto a los presupuestos inferiores a dicha cantidad, también serán revisados si se estiman inferiores a los precios de mercado.

Por ello, los y las promotoras deberán conservar las facturas pertinentes que justifiquen la inversión realmente realizada, durante el plazo de 4 años desde el fin de las obras.

3.- Señalarle que, antes de iniciar la obra, deberá solicitar y contratar la toma de agua correspondiente para la misma.

4.- Indicarle que si se va a edificar a menos de 100 metros de alguna regata deberá obtener la autorización de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico antes de iniciar la obra.

5.- Notificar este acuerdo al promotor.

2.3.- MODIFICACIÓN DE LICENCIA DE OBRA Y AUTORIZACIÓN PARA REANUDAR OBRAS. REHABILITACIÓN DE EDIFICIO SAGARDIGARAIA CON DERRIBO DE MUROS. PARCELA 132, POL. 1. ZALAIN AUZO, 39.

Sustatzailea: Ioan Daniel Rus.

Obra: *Sagardigaraia* eraikina birgaitzea paretak botata. Partzela 132, pol. 1. Zalain Auzoa, 39.

Promotor: Ioan Daniel Rus.

Obra: Rehabilitación de edificio *Sagardigaraia* con derribo de muros. Parcela 132, pol. 1. Zalain Auzoa, 39.

<p>Dokumentazioa: exekuzio proiektua eta agiri osagarriak.</p> <p>Zuzendaritza teknikaria: Fernando Orset Mauleon arkitektoa.</p> <p>Elkargo ofizialaren oniritzia: 2018/02/07, 2018/05/15 eta 2018/06/08.</p> <p>Agiri osagarriak: 2267/2018-10-08 eta 2333/2018-10-17 zenbakiak Sarrera Erregistroan.</p>	<p>Documentación: proyecto de ejecución y documentación complementaria.</p> <p>Dirección técnica: Fernando Orset Mauleon, arquitecto.</p> <p>Visado por el Colegio Oficial: 2018/02/07, 2018/05/15 y 2018/06/08.</p> <p>Documentación complementaria: números 2267/2018-10-08 y 2333/2018-10-17 del Registro de Entrada.</p>
<p>Ikusirik:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Sagardigaraia</i> eraikina birgaitzeko obra lizentzia aldatzeko espedientea -paretak botatzea- (partzela 132, pol. 1. Zalain Auzoa, 39), goiburuan aipaturiko agiriekin, eta gelditutako obrak berriz hasteko baimen eskaera. - Aurrekari hauek: Tokiko Gobernu Batzordeak, 2018ko uztailaren 25ean egindako bileran, erabaki zuen <i>Sagardigaraia</i> eraikina birgaitzeko lizentzia ematea, baldintza batzuk konplitzeari lotua; obraren zuzendaritza teknikoak uko egiten zuela jakinarazi zuen 2018ko urriaren 2an; obrak geldiarazteko akta eman zen 2018ko urriaren 2an. - Eraikuntza katalogatua izanik, aldekoa izan dela Ondare Historikoaren Zerbitzuko txostena (2018-11-26). - Nasuvinsak 2018ko urriaren 25ean eta 2019ko urtarrilaren 11n egindako txosten teknikoak. - Udaleko Idazkaritzak 2019ko urtarrilaren 16an egindako txosten juridikoa. <p>Aho batez ERABAKITZEN DA:</p>	<p>Visto:</p> <ul style="list-style-type: none"> - El expediente de modificación de la licencia de obras para rehabilitación de edificio <i>Sagardigaraia</i> incluyendo derribo de muros (parcela 132, pol. 1. Zalain Auzoa, 39), con la documentación referenciada en el encabezamiento, y la solicitud de autorización para reanudar las obras paralizadas. - Los siguientes antecedentes: en sesión de la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento celebrada el día 25 de julio de 2018, se concedió licencia de obras para rehabilitación de edificio <i>Sagardigaraia</i>, condicionada al cumplimiento de una serie de determinaciones; la dirección facultativa comunicó la renuncia a su función el 2 de octubre de 2018; con fecha 2 de octubre de 2018 se levantó acta de paralización de obras. - El informe favorable del Servicio de Patrimonio Histórico del Gobierno de Navarra, de 26 de noviembre de 2018, dado que se trata de un edificio catalogado. - Los informes técnicos emitidos por Nasuvinsa el 25 de octubre de 2018 y el 11 de enero de 2019. - El informe jurídico emitido por Secretaría municipal en fecha 16 de enero de 2019. <p>Por unanimidad SE ACUERDA:</p>



1. Ioan Daniel Rusi ematea eskatutako obra lizentziaren aldaketa eta obrak berriz hasteko baimena ematea ere, aurkeztutako agiri teknikoetan eta indarrean dagoen araudiaren arabera, eta aipatzen diren zehaztapen hauek konplitzeko baldintzarekin:

1.1. Jatorrizko lizentzian ezarritako baldintza guztiak bete.

1.2. Zuinketa-akta berria egin behar da udal teknikariarekin obra berriz hasi baino lehen.

1.3. 23/2011 Foru Dekretuan eta 105/2008 Errege Dekretuan ezarritakoa bete.

1.4. Obra baimen honekin baimentzen dira aurkeztutako proiektuan eta agiri gehigarrietan agertzen diren obrak, azaldutako baldintzekin. Aldaketak izanez gero, obra baimenaren aldaketa eskatu egin behar da; jakinik, sustatzailea, kontratista eta obra zuzendaria direla obraren arduradunak ondorio guztietarako.

1.5. Bide publikoa hartu behar balitz aldamio edo beste elementuekin, Udalaren baimena eskatu behar da aurretik.

1.6. Hauek dira baimendutako obrak egiteko epeak: urte bat hasteko eta hiru bukatzeko.

1.7. Lizentzia hau ematen da toki araubideko edo araubide sektorialeko legediaren arabera, aginduzkoak diren gainerako baimenak utzi gabe eta hirugarrengoen kalterik gabe.

2. Jakinaraztea eraikina, instalazioa edo obra hastean, Udalari ordaindu behar zaiola eraikin, instalazio eta obren gaineko zergaren behin-behineko kitapena. Kitapen hori egin

1.- Conceder a Ioan Daniel Rus la modificación de licencia de obras solicitada y autorizar la reanudación de las obras, de acuerdo con la documentación técnica presentada y la normativa vigente, condicionada al cumplimiento de las siguientes determinaciones:

1.1.- El cumplimiento de todas las condiciones establecidas en la licencia original.

1.2.- Deberá realizarse con el técnico municipal una nueva acta de replanteo antes de reanudar la obra.

1.3.- Debe cumplirse lo establecido por el Decreto Foral 23/2011 y el Real Decreto 105/2008.

1.4.- Con esta licencia de obras se autorizan las obras que constan en el proyecto y documentación complementaria presentada, con las indicaciones aquí expresadas. Si hubiera modificaciones en la obra se deberá solicitar modificación de la licencia de obras concedida, sabiendo que, a todos los efectos, los responsables de la obra son el promotor/a, la empresa contratista y la dirección de la obra.

1.5.- Si fuese necesario ocupar la vía pública con andamios u otros elementos, habrá que solicitar permiso previamente al Ayuntamiento.

1.6.- Los plazos para la ejecución de estas obras serán de un año para comenzarlas y de tres para terminarlas.

1.7.- Esta licencia se otorga sin perjuicio de las demás autorizaciones que sean preceptivas de acuerdo con la legislación de régimen local o sectorial y sin perjuicio de terceros.

2.- Comunicarle que debe abonar al Ayuntamiento la liquidación provisional del Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras en el momento de iniciarse la

ahal izateko, paretak botatzeko obren aurrekontu idatzia aurkeztu beharko du 10 eguneko epean.

Behin betiko kitapena egiteko, obra-bukaerako ziurtagiria aurkeztu beharko du lanak bukatutakoan, non egindako obren benetako gastua zehaztu behar baita.

Udal teknikariek aztertuko dituzte 100.000 eurotik goitiko aurrekontua duten obra guztiak.

Aurrekontu txikiagoei dagokionez, merkatuko prezioak baino baxuagoak baldin badira, berrikusiko dira baita ere.

Hori dela eta, sustatzaileek lau urtez gorde beharko dituzte dagozkien fakturak, obra bukaeratik kontatzen hasita, egindako benetako inbertsioa ziurtatu ahal izateko.

3. Gogoraztea obra hasi aurretik obrarako behar den ur-hartunea eskatu eta kontratua egin behar duela.

4. Gogoraztea errekatik 100 metroko tartean eraiki behar bada, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren baimena lortu beharko duela obra hasi baino lehen.

5. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari.

Beste aztergairik izan gabe, 13:45 izanik, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA/ VºBº EL ALCALDE,
Josu Irtzoki Agirre.

construcción, instalación u obra. Para poder emitir dicha liquidación, ha de presentar presupuesto de las obras de derribo de paredes en un plazo de 10 días.

Para su liquidación definitiva, deberá presentar certificación final de las obras en las que se indique el coste real efectivo de las realizadas a la finalización de las mismas.

Todos los presupuestos de obras superiores a 100.000 € serán revisados por los técnicos municipales.

Respecto a los presupuestos inferiores a dicha cantidad, también serán revisados si se estiman inferiores a los precios de mercado.

Por ello, los y las promotoras deberán conservar las facturas pertinentes que justifiquen la inversión realmente realizada, durante el plazo de 4 años desde el fin de las obras.

3.- Recordarle que, antes de iniciar la obra, deberá solicitar y contratar la toma de agua correspondiente para la misma.

4.- Recordarle que si se va a edificar a menos de 100 metros de alguna regata, deberá obtener la autorización de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico antes de iniciar la obra.

5.- Notificar este acuerdo al promotor.

No habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde levanta la sesión a las 13:45 horas, lo que yo, el Secretario, certifico.

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO,
Miguel J. Belarra Tellechea.